

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko abenduak 22 · 1294 zenbakia

GABONAK DIN DAN DON!

Zorionak eta
urte berri on!!

EUKI

- LEGEZKOA
- ZERGAZKOA
- FINANTZARIOA
- LAN ARLOKOA
- ENPRESEN BALORAZIOA

www.euki.com

ifarkale, 1. behe. Eibar | Tel: 943 204 291 | asesoria@euki.com

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK

HELVIDE
BERRIA
ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com eta faxa:
943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

Tel. 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Javier Martin Lapeyra ilustratzaile eta ikerlariak 'Untzaga plazaren bilakabidea' izeneko liburua sortu du, herriko gune esanguratsu honek XIX. mendetik XXI. mendera izan dituen aldaketak irudikatuz.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Eskerrak ematen

Lerro hauek aprobetxatuz, Urki CF klubak eta Unax Garciaren gurasoek eskerrak eman nahi dizkiegu jasotako dolumin-erakuskariak bidali dizkiguten guztiei, klubetatik hasi, erakundeekin jarraitu, eta denetariko arloko jendearekin amaitzeko.

Urki CF eta Unaxen gurasoak

Datorren astean Urtekaria kaleratuko dugu

Datorren asteko barixakuan urteko azken alea kaleratuko dugu. Bestalde, hurrengo astean ez da alerik izango: urterokoari jarraituz, Gabonetan oporrak hartu beharrean Erregeetako astean izaten ditugulako, behin Eibarko Kirol Sariak egin ondoren.

Erredakzioa

Hortik esanak



Umeari esaten badiogu haserretu daitekeela eta ez dela ezer gertatzen, baina gero guk gure haserrea erreprimitzen badugu, desoreka handia sortzen da. Gu ez gara gure emozioak; guk emozioak ditugu. Hala ere, ez badidate haserre edo triste egoten uzten, nire emozioak nolabait mugatzen badizkidate, horiek erreprimitzen hasten naiz, eta hor kateatuta geratzen dira. Ume hori oso zintzoa izan daiteke etxean, baina, adibidez, eskolan atera dezake haserre guztia. Edo, bestela, ez badiogu uzten sentitzen ari diren hori sentitzen, haurrak pentsa dezake ezin dela norbera izan modu librean.

DONNA APELLANIZ, psikologoa

Sare sozialekiko beldurra errespetu bihurtu behar dugu. Izugarriko tresna horiek erabiltzeko gaitasuna lortzea da abiapuntua. Hau da, kontua ez da tresna horiek ongi edo gaizki erabiltzea; izan ere, jarrera horrek zuritu besterik ez ditu egiten aplikazio horiek, eta erantzukizun guztia erabiltzailearen gainean jarri. Konturatu behar dugu pertsona bat hezteaz ari garela, adiktiboa den zerbaitekin harreman osasuntsua izan dezan. Nerabe batek ez badu sare sozialak erabiltzeko gaitasunik, erabilia izango da, eta ez erabiltzailea.

TELMO LAZKANO, Gizarte Zientzietako irakaslea

Gurasoek euren beldurak, frustrazioak eta espektatibak lantzen badituzte, umeak bere pentsaera aldatzen du, bakar-bakarrik. Izan ere, egungo gazteak helduok eraikitako gizartearen sintoma bat dira, ispilu bat. Horri buelta eman, eta galdetu egin behar dugu: haiek horrela badaude, ni nola nago? Nerabeei gertatzen zaizkienak es dira tontakeriak, ez dute atentzioa bereganatu nahi gu haiei begira egoteko, gaizki daudelako baizik. Gaur egungo nerabeen garrasia sufrimenduaren garrasia da, gure alderdi emozionalarena. Horri erantzun egin behar diogu, bestela sakelakoak erantzungo dio.

MAITANE ORMAZABAL, psikoterapeuta

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OSO → Asko, zeharo, erabat, guztiz. “Aurten Matxari errekia oso agortu da”.

OSPA EGIN → Ihes egin, hanka egin. “Iñor konturatu baiño lehen, ospa egin eban”.

1953

Mutil gazteak Coliseotik irtetzen

Plazaolaren argazki honetan ikusten duzuen lagun koadrila pozarren irten da Coliseotik, zinema emanaldia ikusi eta gero. Sasoi hartan arbel batean, klarionarekin idatzita iragaritzen zituzten filmak, eta gazte hauek John Wayne protagonista duen *La flota silenciosa* ikusi zuten, antza denez..



Farmaziak

BARIXAKUA 22
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 26
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 27
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 28
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 29
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Pura Gordillo Castilla.** 89 urte. 2023-12-13.
- **Saturnina Lopez Garcia.** 86 urte. 2023-12-13.
- **Gonzalo Saez Aliende.** 75 urte. 2023-12-14.
- **Alberto Conde Rodicio.** 67 urte. 2023-12-16.
- **Jose Antonio Martin Rodriguez.** 67 urte. 2023-12-16.
- **Blanca Beristain Urreta.** 94 urte. 2023-12-16.
- **Ernesto Bikandi Loitxate.** 93 urte. 2023-12-16.
- **Francisca Yurrita Zumalabe.** 101 urte. 2023-12-18.

Jaiotakoak

- **Maddi Arrizabalaga Azpiazu.** 2023-11-10.
- **Alaia Rivera Cardona.** 2023-11-25.
- **Mia Garcia Opazo.** 2023-11-30.
- **Adam Aabi.** 2023-12-01.
- **Youssef Moujane.** 2023-12-04.
- **Udai Fuentes Madina.** 2023-12-06.
- **Leo Enrique Ortiz Collarani.** 2023-12-10.
- **Iraín Olarte Aranbarri.** 2023-12-14.



Eibarren erosteagatik abantailak ematen dituen Oparitu Eibar txartela aurkeztu dute

Eibar Oparitu txartelaren bitartez tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzeko kanpaina dago martxan, Eibar Merkataritza Gune Irekia Elkartearen eskutik, eta aurreko astean egin zuten aurkezpena Vanesa Hortas Garapen Ekonomikorako zinegotziak, Jesus Maria Garcia de Cos Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak, Eibar Merkataritza

Gune Irekiko ordezkariak eta Rural Kutzako ordezkariak. Kanpainak Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza dauka. Ekimenera atxikitutako Eibarko denda, zerbitzu eta ostalaritza establezimenduetan erosteko balio duen VISA txartel bat da *Eibar Oparitu* izenokoa, eta Gabonetako erosketak egiteko zein oparitzeko balio du.

San Andres egoitzan sendagile zerbitzua berrezartzea eskatu dio alkateak Peñari

Jon Iraola alkateak orain dela egun batzuk jakin du San Andres zaharren egoitza “berriz ere” sendagile propiorik ez duela hilaren 7az geroztik eta, azaldu duenez, “biziki kezkatzen nau gure nagusiei zerbitzu hau berriz ere ukatzeak. Horregatik, eta duela urte batzuetatik hona San Andresen egoitza Aldundiak zuzenean kudeatzen duenez, gutuna idatzi diot Maite Peña diputatuari, ahalik eta lasterren gure egoitzan mediku propioa izatea eskatzeko”. Zerbitzu

horri funtsezkoa dela uste du alkateak, “izan ere, mediku-zerbitzua osatu egiten du egoitzako osasun-langileek eta zaintzaileek egunero egiten duten lan bikaina”. Horrela berba egiteko arrazoiak badituela dio, “nire amamak han igaro baitzuten azken urteak, baita pandemia ere, eta oso ondo artatuta eta zainduta egon zen”. Kezkatuta, egoiliarren senitarteko askok jo dute alkatearengana, eta orain Maite Peña diputatuaren erantzunaren zain daude.

Mendi irteera antolatu du biharko Eibarko Baso Biziak natur elkarteak

Eibarko Baso Biziak natur elkarteak 9 hektarea erosi ditu Aritzbakarra inguruan, baso autoktonoa bultzatzeko, eta natura eta gure mendiak maite dituzten eibarrak gonbidatu nahi ditu bihar Txonta eta Saratsuegi magalen artean dagoen gunea ezagutzera joateko. Azaldu dutenez, “helburu nagusia herritar guztiak proiektu honen partaide izatea da. Jarduera honen bidez, herritarrek gure mendiak eta bertako aniztasuna zaintzeak duen garrantziaz ohartarazi nahi ditugu”. Jarduera horrek etorkizuneko proiektu zabal baten hasiera izan nahi du, “Eibarko mendiak beraien jatorrizko egoerara itzultzeko, eta gure ondorengo belaunaldiek gozatu dezaten”. Urkizuko iturritik abiatuko dira, 09:30ean, Aritzbakarragara igotzeko (45 minutu, gutxi gorabehera), eta bertan proiektua azalduko dute, talde-argazkia egin eta ekitaldi sinboliko batekin amaituko dute.

Herritarrek Ipuruako anexoko zelaia asteburu honetan erabili ahal izateko ordutegia

Irailean Eibar Kirol Elkartearen trenamenduetara itzuli behar izan zela eta, Ipuruako anexoko zelaia asteburuetan bakarrik egongo da erabilgarri herritarrentzat. Hala, asteburu honetan anexoko zelaia erabiltzeko ordutegia honako hau izango da: bihar (zapatua, hilak 23), 14:00etatik 20:30era. Eta domekan, 09:00etatik 13:00era. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943203240 telefono zenbakira.



Jendetza batu zuen Euskal Herriko Kontseilu Sozialistaren ekitaldiak

Euskal Herri mailako ekitaldi politikoak jaso zuen zapatuan Astelena frontoiak, Euskal Herriko Kontseilu Sozialista (EHKS) aurkeztu baituzten bertan. “Belaunaldi gazte baten urteetako lanaren ostean, gaur euskal langileriaren alderdia gorpuztu da”, adierazi zuen Ane Ibarzabal EHKS-ren eledunak. Eibarren egindako ekitaldian azaldu zutenez, antolakunde berriak Mugimendu Sozialistaren “erreferente politiko nagusia” izatea du xede: “Ongizate unibertsalaren alde egingo duen forma politiko bat”. Mila lagun baino

gehiago bildu ziren aurreko asteburuan Astelena, eta Garazi Navarro EHKS-ko kideak aipatu zuen zapatukoa hasiera besterik ez zela.

Azken bost urteetan mugimenduak egindako urratsen segidatzat jo dute alderdiaren sorrera Euskal Herriko Kontseilu Sozialistako eledunek. Erakundearen proposamen politikoa zazpi auzi nagusitan banatu zuten: bizitzaren garestitzea, gerra, autoritarismoa, krisi ekologikoa, emakume langileen zapalkuntza, autodeterminazioa eta amnistia.

Euskarazko eskaintza aktiboa abiatu dute Debabarreneko ESIn

Osasun zentroetako emaginek eskaintza aktiboaren orria banatzen hastearrekin batera, abenduaren 1ean abiatu da euskararen eskaintza aktiboa Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan. Bertako zuzendaritzatik jakinarazi dutenez, “urtebete baino gehiago eman du lantalde batek tokoginekologiako ibilbide osoan arreta euskaraz emateko hobekuntza arloak aztertzen. Horretarako, erabiltzaile euskaldunei galdetu zitzaion hobetu beharrekoak identifikatzeko, eta zerbitzua osatzen duten unitate ezberdinetako langileekin ere hausnarketa-saioak egin ziren. Ondoren, 2023 ekintza-plana adostu eta martxan jarri da”.



Palestinako sarraskiarekin amaitzea eskatuko da gaur 18:30ean Untzagan

Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldekoek deituta, Palestinari babesa adierazteko kontzentrazioa egingo da gaur, Untzagan, 18:30ean. Mobilizazioan palestinarren kontrako eraso eta hilketak geratzeko eta bakea eskatuko da. Mobilizatzeko deialdiarekin batera, Palestinan bizitzen ari diren egoera latza salatu dute: “Bi

hilabete daramatzagu bonbardaketa, familien hilketa selektiboak, auzo osoen suntsipena, umeen hilketak Gazan eta Zisjordanian ikusten. Eibarren ez dugu nahi beste alde batera begiratu, badakigu zer ari den gertatzen, hurbiletik jarraitzen ditugu hango gertaerak eta ez dugu nahi genozidio horren konplize izan”.





Gaikako Bilketa Hobetzeko Plana lantzen ari dira Mankomunitatean

Gaikako bilketa %2,13 jaitsi da eta edukiontzi grisean utzitako hondakinak %0,67 hazi dira. Hala eman zuten jakitera aurreko astean Debarreneneko Mankomunitatean egindako prentsaurrekoan. Mankomunitatearen kezka 2023ko balantzean islatzen da. Izan ere, aurreko gaikako bilketa %2,13 jaitsi da, eta edukiontzi grisean utzitako hondakinak %0,67 igo dira, herritarrek hondakinak gero eta gutxiago bereizteko duten joera argia agerian lagata. Iaz Debarreneneko

gaikako bilketa tasa %54,28koa zen, eta 2023an %53,58koa da. Beherakada batez ere hondakin organikoen zatikian nabaritu da, 4.712 tonatik 4.460 tonara jaitsi da eta. Horrekin batera, pertsonako 65 kilo hondakin organiko biltzetik pertsonako 61 kilo biltzera pasatu gara aurreko. Egoera hori ikusita, neurri sendoak hartuko zituztela iragarri dute aurretik ere, eta gauzak aldatzeko asmoz hasi dira Gaikako Bilketa Hobetzeko Plan berria lantzen.

Gaur izango da Pagatxaren azken zine-forum saioa, datorren urtera arte

Pagatxa Emakume Elkarteak, Udaleko Berdintasun zerbitzuaren laguntzarekin, aurtengo azken zine-foruma egingo du gaur, “La Mujer de la Montaña” pelikularekin. Portaleko areto nagusian izango da, 18:30etik 20:00etara. Dinamizatzaile lanetan Izaskun Rodriguez Elkoro arituko da.



Euskarazko produktuen katalogoa banatu da Eibarko ikastetxeetan

Euskarazko jolas, joko, liburu eta musika jasotzen dituen katalogoa eta orri markatzailea banatu dituzte Eibarko ikastetxe guztietan. Gure herriko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ume guztiak jaso dute euskarazko produktuen katalogoa. Guztira 2.800 ale banatu dira. DBHko ikasleen artean, berriz, 1.700 orri markatzaile banatu dira. Bertan QR baten bidez katalogoak gaztetxoentzat duen atalerako sarbidea ematen da. Egitasmo horren bidez familiei eskura jarri nahi zaizkie merkaturuan euskaraz dauden produktuak Gabon garaian, umeei opariak egitean, euskarazkoa izateak duen garrantzia kontuan hartuta. Katalogoa Interneten ere kontsultatu daiteke, www.katalogoa.eus helbidean. Edukiak adinaren arabera daude sailkatuta eta, behin norberaren interesekoa den azpiatala aukeratuta, euskaraz eskuragarri dauden era guztietako materialaren berri ematen da, oso modu argian gainera: liburuak, jostailuak, musika, komikiak, filmak, informatika...





'Hondamendia' lanaren azken emanaldia Zaldibarren egingo da

Abenduaren 29an *Hondamendia* antzezlanaren azken emanaldia egingo dute Artedrama eta Axut konpainiek, Zaldibarren. Pilotal lekuan izango da, 19:00etan, eta sarrera doan da. Zaldibar Argituk herritarrak deitu ditu bertaratzeko, “antzezlan zoragarri baten azken emanaldiaz gain, aldarrikapen unea ere izango delako. Langileak, Osasuna eta Erantzukizunak aldarrikatuko ditugulako beste behin ere. Borroka honek aurrera jarraitzen duelako”. Bide batez, esker ona azaldu nahi diete bi antzerki konpainiei.



La Salle ikastetxeak eta Tandanacui bat egin dute Gurutze Gorriaren kanpainarekin

Urtero bezala, Gurutze Gorriak jostailu berriak jasotzea helburu duen “Haien eskubideak jokoan” kanpaina berria abiatu du, oraingoan ere zailtasunak dituzten familietan dauden haurrek jolasez eta jostailuez goza dezaten, eta La Salle Azitain ikastetxeak eta bertako Tandanacui taldeak kanpainarekin bat egin dute, helburu hori lortzen laguntzeko. Jakinarazi dutenez, alde batetik zuzenean laguntzeko

aukera dago, kanpainarako jostailu berri bat erosita eta Azitaingo idazkaritzako edukiontzian lagata. Eta, bestetik, Tandanacui taldeak “Pintxo Solidarioa” izeneko ekimena hasi zuen abenduaren 11n, kanpainarako dirua batzeko. Asmo horrekin, atzora arte egunero aritu dira jolastorduan pintxoak euro baten saltzen. Batutako diru guztia gaur emango diote Gurutze Gorriari, jostailuak erosi ditzan.



Zaintza eredu berri baten aldeko mozioa aurkeztu du Eibarko EAJ-PNVk

Batzokiko Berbaldiak ekimenaren barruan, alderdi jeltzaleak topaketa egin zuen aurreko astean, Maitte Peña Zainketetako eta Gizarte Politiketako foru diputatuaren, alderdiko kargudun zein alderdizaleen, eta Gurutze Gorria, Agifes, Untzagako jubiletzea eta Debabarrenako Nagusien Kontseilua bezalako hirugarren sektore sozialeko ordezkarien parte-hartzearekin. Eibarko EAJ-PNVk, Isabel Elorza presidentearen eta Josu Men-

dicute udaleko bozeramailearen eskutik, zaintza-eredu berriaren ardatzak finkatzen dituen mozioa erregistratu duela iragarri du, eztabaidatu eta onar dadin. Elorzaren berbetan, “sendoa, eraldatzailea, feminista eta komunitarioa den euskal zaintza eredu baten alde egiten dugu, adostasunak eta akordio zabalak lortzeko gai izango dena; zaintzaren inguruko herri-itun berria lortzera eramango gaituzten zutabeak”.



Ezkerreko argazkian Azitain erretegiko Josetxo, gaztetan. Aldamenean Pedro Egiguren Izkua aizkolaria. Biak oso ezagunak auzoan.

Azitaingo auzotarrak ez ziren eibartarrak ere inplikatzeko ziren irailako jaien antolaketan. Behin, auto batekin Eibartik bueltara ibili ziren, bozgorailu bidez jaien berri ematen.

Azitaingo jaiak antolatzeko jende asko mugitzen zen

Josean Urkia Zuloaga
(1965)



Jose Andres (Josean) Urkia Zuloaga Eibarren jaio zen 1965ean. Azitainen eman du bizitza guztia eta Andra Mariko parrokiarekin eta auzoko jaiekin lotura handia izan du betidanik. “Eibarko Ermitak” proiektuan parte hartu zuen, auzoko elizari, jaiei eta Felix Bergara abadeari buruzko kontuez hitz eginez.

Josean Urkiari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Lehen aittatu dozu jende asko etortzen zala, basarrixetatik aparte, Eibartik...] Asko, bai. Atera kontuak inkluso, urte batzutan, gu baiño nagusixaguak, pixkat publizidadia egittiarren, Aitor Alberdi? Hainbat urtetan Olentzero ibilli dana? Ha izan da ‘alma mater’ bat gure jaixetan. Carlos Abad, Urkotronikeko gerentia dana... Horrek izan dira, ni baiño sei zazpi urte zahartxuaguak diranak, nagusixaguak. Josetxo, tabernakua, horretxek izan dira hau sortu ebenak. Urte baten akordatzen naiz kotxe zahar bat preparau ebela, eta megafoniakin eta, Eibartik zihar, kalejira moduan, pues aurreratzen, propagandia egitten, zelan ziran Azitaingo jaixak, ez dakit ze grupo dago, etorri mesedez ta... Jendia beti. Baiña lleno-lleno, eh! Ta sarrerak, eta irteerak, ta plazia, ta txosnak... Ta batian baiño gehixagotan, Sarasketatarrak, Tas Taseko Sarasketa anai bixak, diar egitten gentsagun ba mesedez generua bajatzeko, ze genero barik geratzen giñan. Bikuñatarrerri be zerbezak. Bai, bai, bai, urtietan pasatzen zan hori.

Gabonetako oporretan ez aspertzeko moduko hamaika aukera

Olentzeroren opariak jasotzeko pixka bat gehiago itxaron behar badugu ere, aspalditik gaude Gabonetako giroan sartuta. Udalak eta herriko merkatariek urtero antolatzen duten kanpaina Errebalen dagoen pinuaren argiak piztearekin batera hasi zen, eta ordutik hona gero eta gehiago dira herriko etxe eta leihoak apaintzen dituzten argiak.



Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai



Opariak asteburuan, Gabon gauean banatuko dituzten arren, Mari Domingi eta Olentzero egun batzuk aurretik etorri dira Eibarrera, haurren oporren aurretik herriko eskoletara joateko. Urtero bezala, umeez pozarren, kantu artean hartu dituzte, eta batek baino gehiagok aprobetxatu du bisita idatziz eskatutako opariak berriz ere zuzenean eskatzeko, badaezpada edo... Dena dela, norbait gutuna idazteko berandu badabil, bihar arte izango du Olentzeroren buzoian sartzeko aukera, Pegoran eta Portalean.

Bestela, azken urteotako martxan, domeka goizean, hilaren 24an egingo dute kalejira Mari Domingik eta Olentzerok, 11:30ean Urkizutik abiatuta. Untzagaraino joango dira. Juan Bautista Gisasola Eibarko Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasleekin ba-

tera, Kaleetan Kantuz taldekoek, galtzagorriek eta familiek lagun-duta. Bidean hainbat alditan geratuko dira, atsedean pixka bat hartu eta jende guztiarekin batera kantatzeko. Eta, kalejira amaitu eta jarraian, 12:30 aldera, udaletxean egongo dira, umeen azken eskutitzak jasotzeko.

Astelena Haur Parkea, izotz-pista eta barrakak

Bestalde, jende gehienak oporrak izango dituela-eta, umeen aisialdia betetzeko jarduera ugari antolatu dituzte aurten ere. Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) sustatutako kanpainaren barruan, patinatze izotz-pista, barrakak eta Gabonetako Haur Parkea egongo dira martxan.

Errebalgo izotz-pistak gaur zabaldu ditu atreak, eta urtarrilaren 7ra arte egongo da bertan patinatze aukera, goiz eta arratsal-



Eibarko eskoletako haur askok Olentzero eta Mari Domingiren bisita aprobetxatzen dute, beraien gutuna eskura emateko. Dena dela, Olentzeroren buzoira botatzeko aukera dago Portalea eta Pegoran, bihar arte. EKHI BELAR.

dez (11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara), abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik. Abenduaren 24an eta 31n, berriz, pixka bat aurretik, 19:30ean itxiko dute.

Eta, bihartik aurrera, Astelena pilotalekuak Gabonetako Haur Parkea hartuko du, 2 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jarduerak ugarirekin. Abenduaren 23an, 26an, 27an, 28an, 29an eta 30ean, eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an zabalduko dute, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era. Gabonen ostean ere, jarduerak martxan jarraituko du, martxora bitarteko zapatuetan.

Aipatutako bi horiekin batera, barrakak jarri dituzte herriko hiru tokitan: Txaltxa Zelain bost

Eibart Gabonetako Artisautza Azoka urtarrilaren 5era arte egongo da Untzagan, eskuz egindako opariak erosi nahi dituztenentzat

Haur eta gazteen aisialdia betetzeko robotika tailerra eta beste jarduerak batzuk antolatu ditu Kulturak

atrakzio ipini dituzte martxan gaur bertan, eta beste hiru Urkizun. Horrez gain, txikienentzako karrossela azaroaz geroztik dago martxan, anbulatorioko parkean, eta otsailera arte han jarraituko du. Beste barrakak urtarrilaren 8ra arte egongo dira.

Astelena Haur Parkea eta patinatze pista doakoak izango dira, kanpainan parte hartzen duten establezimenduetan gutxienez 20 euroko erosketak egiteagatik emango diren bonuak aurkeztuz gero. Bonu barik, prezioa 3 eurokoa izango da, eta bietan ordu eta erdiz egon ahalko da, gehienez. Kanpainan parte hartzen duten establezimenduek, halaber, barraketarako bonuak ere banatuko dituzte. Abenduaren 22, 23, 26, 27,

Gaur zabaldu dute patinatze izotz pista Errebal Plazan eta bihar hasiko da Gabonetako Haur Parkea Astelenan



28, 29 eta 30ean bonuak entregatuta euro bat ordaindu beharko da, eta 2 euro gainerako egunetan.

Aisialdirako jardueraz gain, Eibar eta inguruko artisauen eskaintzarekin Eibart azoka egongo da Untzagan, jaiak amaitu arte.

Urtarrilaren 5ean Errege Magoak Gabonak amaitu aurretik, urtarrilaren 5ean, Errege Magoen txanda izango da. Eibarko Musika Bandarekin batera, 19:00etan hasiko da kabalgata, Untzagan. Bi ordu lehenago, Ipurua Kiroldegian Nele Dantzaren, Eibarko Balletaren, Kaxaren, Koaren eta Ipuruako Gimnasia Erritmikoko Klubaren emanaldia egingo da. Bertara joateko gonbidapenak aste honetan banatu dituzte.



Talde ezberdinen eskutik ikuskizun eta emanaldi ugari izaten dira beti urte sasoi honetan, eta dantzak zein musikak protagonista bilakatzen dira.

Herriko bihotzaren aldaketak

Untzagak XIX. mendetik XXI. mendera izan duen bilakaerari buruzko liburua landu du Javier Martin Lapeyra ilustratzaile eta ikerlariak. Marrazki “arin, soil eta neutroen bitartez”, autoreak planoetan kokatu ditu orain arte argazkietan bakarrik ikusi ditugun eraikin eta abarrak, herriko plaza esanguratsuenak 1896. urteaz geroztik izan dituen aldaketak irudikatuz.

Udaletxeko batzar-aretoa lepo bete zen eguazten iluntzean ‘Untzaga plazaren bilakabidea’ liburuaren aurkezpenean. Liburuaren egilea, Javier Martin Lapeyra, pozik agertu zen 15 urteko prozesuaren ondoren lanak argia ikusi zuelako. “Ohorea da niretzat”, adierazi zuen. Jon Iraola alkateak, bere aldetik, esker oneko berbak besterik ez zituen izan Martin Lapeyrarentzat. Izan ere, bere hitzetan, “Eibarko eguneroko bizitza soziala eta kulturala ez litzateke ezagutuko Untzaga gabe. Hirriaren bihotza da”.

Martin Lapeyrak ere harreman estua du Untzagarekin, atzerrian lanean egin dituen hilabeteek eta urteek bere jaioterriarekin duen lotura estutu duen beste. “Sasoi luzeak pasatu izan ditut Eibartik kanpo, herria kanpotar baten begietatik ikusteraino”, bere berbetan. Orain dela urte batzuk, oster,



familiako baten galerak, eta Txal-txa Zelaiko frontoiaren eta arkuen eraikinaren eraisketak, oso galera garrantzitsuak izan ziren beretzat. “Oso galera intimoak izan ziren”, horiek baitziren herriarekin lotzen zituen elementu batzuk.

Autoreak aipatu bezala, eibartarrek nolabaiteko “trauma espaziala” jasaten dugu, “higiezin galerek eraginda”. Beraz, galera horiek, gutxienez, gure memorian geratzeko asmoz, ikertzaile sena piztu zitzaion Martin Lapeyrari. “Berandu hasi nintzen amamak Eibarren inguruan kontatu ahal zizkidan gauzak jasotzeko”, esan zuen atsekabez, baina argazkietan aurkitu zuen ikerketa abiatzeko haria. “Fenomeno berria hasi zen sasoi hartan: iraganeko argazkien trafikoa”, bere berbetan. “Internti esker, irudien zabalkunde eta partekatze mugimendua hasi zen, irudi-artxiboetarako sarbidea izan genuen...”.



Ilustrazioez gain, argazki zaharrak agertzen dira liburuan. EKHI BELAR

Ikerlari lana

Autoreak berak, 2010ean, “Parisen nengoela”, Plazaola fondoaren zabalkundean lagundu zuen bere blogari esker (javitxooo.blogspot.com). Gainera, Eibarko argazkien liburuak argitaratu ziren eta horrela, poliki-poliki, Martin Lapeyra “argazkien bildumagile” bihurtu zen, gauza batez ohartuz. “Untzagaren inguruan dokumentu ugari zeudela ikusi nuen. Irudi asko nituen, baina ordenean jartzeko beharra sentitu nuen”, azaldu zuen aurkezpenean. Beraz, ilustratzailea izanik, dokumentu eta irudi horietan jasotakoarekin, Untzagak izan duen bilakaera marrazkien bitartez irudikatzea pentsatu zuen. “Kamera geldoan izango balitz bezala”, bere berbetan.

Inork ez zion enkargurik egin, bere kabuz hasi zuen lana izan zen, harrera nolakoa izango zen jakin gabe. Orain, urteetako lanaren ondoren, merezi izan duela dio. “Gai-

>>> Javier Martin Lapeyra ilustratzaile eta ikerlariak Untzagaren bilakaeraren inguruko liburu aurkeztu zuen eguaztenean

>>> Urte askotako lanaren ondoren, argazki eta artxiboetan arakatu ostean, sasoi ezberdinetako planoak marraztu ditu Untzagako elementuak kokatuz

nera, polita izan da zuri-beltzeko liburuxka bezala hasi zena, orain tapa gogorreko liburu bat bezala aurkeztu ahal izatea”, bere ustez.

Edinburgon lan egin ondoren, etxera itzuli zen denboraldi baterako eta, gaiari heltzeko denbora zuenez, orduan ekin zion proiektuari. Horretarako, iturrietara jotzea izan zen lehen gauza. “Ahozko iturri

gehienak hilda daude orain, baina horietako askorekin sasoz egotea lortu nuen”, azaldu zuen. Bestetik, orduak eta orduak pasa ditu Eibarko Udal Artxiboan eta baita Donostiako beste artxibo batzuetan ere, eta Eibarko artxibozainaren lana goraiatu zuen.

Ahoz eta artxiboetan jasotakoarekin piezak bere tokietan sartzen



Proiektu pertsonala herriarentzako liburu bihurtu du Martin Lapeyrak Udalaren laguntzarekin. EKHI BELAR

>>> "Vista caballera delako teknika erabilita, sasoi bakoitzean Untzaga nola zegoen ikusi daiteke, "drone batek Mekolatik argazki bat egingo balu bezala"

hasi zen, baina ez zen lan samurra izan. "Iturri batek gauza bat esaten zuen eta dokumentuetan beste modu batean agertzen zen, adibidez. Pentsa dezakegu dokumentuetan agertzen dena izango dela zuzena, baina beti ez zen horrela izaten. Orduan, iturri guztiak aztertuta, akordio batera iritsi behar izaten ginen", azaldu zuen.

Sei ilustrazio

Oinarri sendoak ezarri eta lan ikaragarria egin ondoren, 2010. urtean amaitu zuen liburua eta sei urte pasa zituen Udalarri liburua eskaini arte. "Liburu didaktiko eta bisuala da

horren emaitza", autorearen ustez. "Untzagan egon diren elementuen atlas moduko bat da. Hau da, argazkietan agertzen diren eraikuntzak eta abarrak bere tokian kokatu ditut. Zalantza espazialak konpontzen saiatu naiz", gehitu zuen.

Liburua sei ilustrazioren inguruan egituratzen da, 1896tik 2010era, 20 urteko denbora-tarteetan banatuta. Horrela, 'vista caballera' delako teknika erabilita, sasoi bakoitzean Untzaga nola zegoen ikusi daiteke, "drone batek Mekolatik argazki bat egingo balu bezala". Horri, gainera, argazki zaharrak eta azalpenak gehitu dizkio.

Lehen ilustrazioa 1896. urteari dagokio. Sasoi horretan, Untzaga hiri-bazterrean zegoen, errebalean. "Ubitxako ubidearen eta Ego erre-karen elkargunea zen. Erret Bideak herria gurutzatzen zuen eta plano horretan agertzen diren eraikin guztiak gaur egun ez dira osorik existitzen, baina zati batzuk bai. Izan ere, ia ziur gaude Txoko taberna dagoen eraikina eta Untzaga 2 eraikina Untzaga Jauregiaren piezekin eginda daudela", adierazi zuen.

Bigarren marrazkiak Untzaga-ren egoera 1916an irudikatzen du. "Puntu horretara heltzean, desorientatu egiten zara", bere ustez. "Untzaga Ramon Cortazar arkitektoaren proiektu handia bezala ezagutu daiteke, berak ezarri baitzuen gaur egun ezagutzen dugun laukizuzen handia", gehitu zuen. Horretarako, aurreko ilustrazioan agertzen ziren eraikin asko desagertu behar izan ziren, plazak gaur egun duen itxura hartzen hasiz.

Hirugarren irudian, 1936koan, “plaza proportzionatuena” agertzen da, Martin Lapeyraren ustez. Plaza arkupeze inguratuta zegoen eta Elgetarako bidea zabaldu zuten. Frontoiari dagokionez, hiru belaunaldi egon zirela aipatu zuen, eta sasoi horretakoari ‘frontoi zaharra’ deitzen zitzaioela. “Gainera, industria-gunea desagertu zen”, zehazten du.

Hogei urte geroagoko irudian, 1956an, antzerki-aretoaren desagertzea nabarmendu zuen Martin Lapeyrak. “15 urtez egon zen agerian eta barrakak jartzeko aprobeztatzen zuten”, esan zuenez. Gainera, oso toki jendetsua bilakatu zen salmenta-etxetxoekin, saltzaileekin, musika-kioskoarekin... “Txaltxa Zelaiko frontoia tokiz aldatzeko proiektua eten egin behar izan zuten Gerraren ondorioz, horregatik argazkietan horzgabe ikusten da”, adierazi zuen.

1976an “aldaketa handia” gertatu zen antzerki-aretoaren gunean, Untzagako dorrea eraiki baitzuten. “Gure Eiffel dorrea da, batzuek atsegin dutelako eta beste batzuek ez”, bere ustez. Gainera, San Juan kalea ireki zuten eta Untzaga bide-lotunea bihurtu zen, oraindik trafikoa handirik egon ez arren. Horrez gain, platanondoak landatu zituzten plaza inguruan.

Azken marrazkia 2010. urteari dagokio. Aldaketa handiena Txaltxa Zelain ikusi daiteke, bertan egin zen obra handiaren ondorioz. Gainera, bertako hego-hegalean zeuden hezetasun arazoak konpontzeko, gaur egun ditugun gradak jarri zituzten. “Eibarko sanbodromoa”, Martin Lapeyraren berbetan.



Udaletxeko batzar-aretoa bete egin zen liburuaren aurkezpenean. EKHI BELAR

Aldaketa guzti horiek ikusita, “goia jo al dugu?”, galdetu zuen liburuaren autoreak. “Ez, noski”, erantzun zuen. “Eibarrek aldatzen jarraitzen du. Argazkietan Eibar beti agertzen da mugituta”. Eta bai, Untzaga inguruan gaur egun egiten diharduten obrei begiratzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Herriko bihotza beti dago martxan.

BIDEOA



“Markos Gimenoren jenialtasuna errebindikatu nahi dut liburuarekin”

JOSEBA SARRIONANDIA • idazlea



Markos Gimenek sortutako palindromoetan inspiratuta, Joseba Sarrionandia idazleak hitz-joko berezi horiekien egindako bilduma kaleratu berri da. *101 / Letrakartel* izenburu bpalindromikoarekin, Markosen ordenagailuetan eta koadernoetan pilatutako lanak liburu bihurtuta eskuratu ahal dira, auzolan ederrari esker. Idazle iurretarrarekin egon gara ermuarraren lan eta ekarpen artistikoaren gainekoak gertutik ezagutzeko.

TESTUA: ESTIBALITZ GONZÁLEZ

Noiz izan zenuen Markosen lanaren berri?

Habanan nengoenean ezagutu nuen Zerorajaso bloga, Euskal Herrira itzultzean Markosen ama eta arreba ezagutu nituen apur bat kasualitatez, eta orduan ikusi nuen obra oso berezia egin zuela, bere biografiarekin eta bere gaixotasunarekin loturik, zentzu handikoa nire ustez... Nik ezagutzen ez nuen belaunaldi bateko pertsonaia zen, 1980tik kanpoan egon naizelako, eta Markosen bizitza ezagutu ahala konturatu naiz belaunaldi horri ere sasoi interesanteak bizitzea tokatu zaiola.

Sasoi interesantea?

Slavoj Žižek deitzen den filosofo batek erabiltzen du esaera hori ironiaz, txinatar maldizio batetik: “Garai interesanteak bizi ditzazula!” esaten omen zaio gorroto diozunari, ze interesanteak, krisi sasoiak, arazo eta konfliktodunak, lasai aspertzeko aukerarik ez duzunekoak dira.

Zerk deitu zuen zure arreta Markosengan?

Batez ere gaixotasun sortzaile horrek, jenialtasun horrek, araei buelta emate horrek... Hizkuntza tresna normaltzat hartzen dugu, baina normaltasuna bera ere ez da normala. Markosen obrak normaltasun faltsu horretatik ateratzen gaitu, hizkuntza bizileku eta sormen espazio bihurtuz: palindromo ustekabeak, hitz asmatu barregarriak, anagramak, grafiti ederrak... Uste dut Markosetik euskaldun guztiak errepresentatzen gaituela eraren batean, dena normal dagoela esaten da edo



Liburuaren azala.



Marcos Gimenezaren 101 Letra Kartel erakusketaren inaugurazioa Gernikan.

normalizaziora goazela esaten da, baina gure bizimodu sozio-linguistikoa, eta politikoa ere bai, eskizofreniara kondenatuta dago. Hizkuntza bera ere halaxe daukagu-eta, estandar arautuaren aldean, liburu honetan eskizopoz apur bat proposatzen da.

Zelan sartu zinen bere palindromoak liburu bihurtzeko abenturan?

Nire lehenengo ideia Markosen idazlan guztiak tomo baten biltzea izan zen, baina konturatu nintzen hori artxibistika lan bat izango zela, obra hori ez zela helduko jendearen komunikazio benetako espazioetara. Konpartitzen dugun hizkuntza bizira ekarri nahi izan dugu lan hori. Palindromoen arazoa da zentzugabetzat hartzen dela, ustekabeko aurkikuntza injenioso direla baina zentzurik ez dutela. Onartzen zaio zentzua aforismoari, baina ez palindromoari. Nire ustez, lengoaiaren eta komunikazioaren denak du zentzua: palindromoak, aforismoak, saiakerak, eleberriak, eta isiltasunak ere zentzua du. Orduan, zentzu horren bila abiatu naiz liburuan, beste lagun batzuekin, ze lengoiaia eta komunikazioa elkarlana da, eta palindromoen interpretazio bisualaren aldameneari, eztabaida batzar moduko bat konbokatatu dugu liburuaren ezkerreko orrietan.

101 Letrakartel da liburuaren izenburua. Zuk zelan aurkezten duzu?

“Markosen obrak hizkuntza bizileku eta sormen espazio bihurtzen du”

Alde batetik, Markos Gimenezaren bizitza eta lanaren azalpena da, Ermua eta Eibarraldetik kanpora ia eza gutzen ez den autorea. Badago hor saiakera bat bere bizitza eta bere belaunaldiaren asmoak eta bizipenak konprenitzeko. Beste alde batetik, auzolana da, jende askok kolaboratu du kartelak egiten, batzuk Markosen koadrilakoak, baina beste batzuk urrunagoak, eta testuetan ere bai: Joanes Leizarraga, Liza Minelli, Ambrose Bierce, E. Unanue, Mariano Rajoy, Anari edo Nikolas Gogol... auzolan oso irekia da. Azkenik, esan nahi dut, hizkuntzaren alde ludikoaren erreibindikazioa egiten dela: gainetik kendu ezin dugun egitura diglosikoarekin, euskaldunak ohitu gara sakrifizio edo behartzat hartzen euskaraz egitea, eta hemen liburuan euskaraz ustekabeari zabaltzen zaizkio atea.

Liburuak harridura, barregura, negargura... zer sortu dezake?



Liburuan kolaboratu duten ilustratzaile, argazkilari eta grafitigileak.

Denetik, harridura orri gehienetan, barregura asko-askotan, eta igual negargura ere bai momentu batzuetan, ez dut uste aspergarria izango denik. Ni behintzat asko dibertitu naiz liburua egin ahala. Hasteko, Markosek egin zuen arekin, eta gero, bere sortze metodoa generatihoa denez gero, linguistika chomskianoan esaten den bezala, gramatika generatiboak dira, eta Markosen sormenak pizten dira beste hiztunon sormenarekin. Irakurleak horretara konbokatzen dira, irakurketa sortzailerak.

Irudigileek ere lanak izango zituzten esaldi xume baten esentziara ailegatzeko eta irudira ekartzeko...

Bai, bakoitzak bere estilora interpretatu du palindromoa eta irudi bihurtu. Uste dut denak sartu garela Markosen mundura, irudigile asko Markosen lagunak dira, Markosen sarea, Ermuko edo Eibarko haren adiskideak, beste batzuk urrunagokoak, esate baterako Ares, Habanako karikaturista bat. Auzolanetan bezala, kolaborazioa emankorra izan da.

Irakurle orentzat pentsatua dago edo bakarrik hitz-jokoak, hizkuntz-jolasak eta berbekin esperimentatzea maite dutenentzat?

Liburua zubi bat da hizkuntza-sormenaren esferatik, palindromogintzaren islatik, hiztunen komunitate irekira. Kezka intelektual apur bat duen edozeinek irakurri dezake. Palindromoen hizperimantazioa dago abiapuntuan, baina gero denon gauzak planteatzen dira eta denon hizkuntzan.

Euskal literaturan ze leku betetzera dator 101?

Euskal literatura, eta euskaldungoa orokorrean, korrontearen kontra bezala bizi gara, gauzak diren moduan ametituz gero urak eramango gaitu laster edo apur bat geroago. Mundu guztiari gertatzen zaio hori, baina euskaldunei modu berezian. Dena egiteko daukagu beti, hizkuntzatik hasita... Gure literaturak bete gabeko espazio handiak ditu oraindik, eta lan hau batez ere ustekabekoan, umorearen eta inkorrektzioen aldera dator.

Artistikoki eta sortzaile modura, zelan definitzen duzu Markos Gimeno?

Niretzat jenio bat izan zen, agian erdizka garatu zena, neurri batean bere gaixotasunagatik, eta bestetik bere sormena ondo bideratzeko aukerarik izan ez zuelako, bere lana gazte mugimendu lokalean geratu zen mugatua. Euskaldunontzat ona da bera bezalako sortzaileak izatea, pena da bera joanda gero konturatzen garela.

Badago paralelismorik Markos Gimeno eta Joseba Sarrionandiaren artean?

Ez dut uste, Markos jenio bat da gaixotasun diagnostikatu eta guzti, eta ni idazle arrazionalista bat naiz. Berdintsuak gara beste plano batean: bere bizitza errepasatzen konturatu naiz jende piloia ibili dela Ermuan herrilanean, Markos eta beste asko auzolanean euskararen alde eta beste gauza askoren alde, herri hori eta mundua hobetzeko asmoarekin; ni apur bat lehenagokoa naiz, eta 70eko hamarkadako herri mugimenduko jendea ezagutu nuen. Gero, telebistan edo liburuetan izen batzuk errepikatzen dira, gehienek izena aipatu ere ez da egiten eta askok egindakoa ahaztu egiten da laster. Markos eta ni, izendatu daitezkeenak baino gehiago diren herri-behargin eta sortzaile horietako bi baino ez gara, oihartzun edo erantzun apur bat izateko suertea izan dugunok.

Eta orain zer?

Gernikako Euskal Museoa, kartelen erakusketa izango da martxora arte. Gainera abenduan, ehun urte betetzen dira Kirikiñok euskarazko palindromoen txapelketa antolatu zuenetik Euzkadi egunkarian, eta antzeko zerbaitegino da Berrian; Bigara taldeak beste erakusketa bat dauka Mañarian zientzia museoan... Markosen obratik, parte txiki bat erabili da liburu honetan, beste batzuk egin beharko dira... Dena eginda balego, akabo. Gai honetan, beste batzuetan bezala, euskaldunek suertea dugu, dena egiteko dugulako.

Urtea agurtzeko azken txangoa egin zuten Deporreko mendizaleek

Hirurogei lagun inguruko taldea bildu zen Klub Deportiboko mendibatzordeak antolatutako urteko azken txangoa egiteko Arabako lurretan zehar: “Artatza auzotik irten eta Subilana-Morillas herrixkan amaitu genuen, Arkamu mendikatean barrena ibili eta gero. Artadia nagusi den basoan, hasteko, igoe-

ra xume batek Kotorrillos tontorrera eraman gintuen (1.084 m.)”. Ondoren, Santa Kruz gaina (965 m.) egin eta, mendizintzuraren barrenetik bidezidorrean behera, San Pedroko baseliza berriztatura iritsi ziren, bertatik Subilana Morillasera jaisteko. Zeharkaldiaren 13 kilometroak eginda, autobusean

berriro Okako Iruñara joan ziren, bazkari oparoa egitera: “Bertan datorren urteko mendi-egutegia banatu zen; ohikoa baino garrantzi handiagokoa gainera, ez baita alperrik Klubaren mendeurrena ospatzen”. 2024ko urtarrilaren 24an mendiarekin hain harreman estua duen klubak 100 urte beteko ditu.



Argazkiko mendizaleek ez zuten aukera galdu, txango bikainaz gozatzetik aparte, bazkari ederrarekin agurtzeko urteko irteerak.



Ipuruako gimnasten senior taldea azpitxapeldun Espainiako txapelketan

Aurreko barixakuan hasi eta atzo amaitu zen Espainiako txapelketa horretako finaleran, gure herriko Ipurua klubeko talde nagusiak lan bikaina egin ondoren podiumaren bigarren mailara iritsi zen. Nahia eta Haizeder Arguiz, Indira del Pino, Naroa Alonso eta Arrate Baskaranek osatutako boskoak hasieratik jardun zuen maila onean eta, 52 talderen artean, lehen pasean 9. postuan amaitu zuen, 25,700 puntu eskuratuz. Zapatuan beste 25,000 puntu lortu zituzten eta, egindako lan bikaina ikusita, teknikariek erreklamazioa aurkeztu zuten, epaimahaiak aintzat hartu

ez bazuen ere. Bi errotazio horien ondoren Ipurua seigarren kokatu zen sailkapen nagusian: hor podiuma lortzen zutenek 1. Mailara igotzen zirenez, eibartarrak gertu izanda ere, azkenean ez zuten helburu hori lortu.

Txapelketa amaitzeko sailkapeneko zortzi onenek lehiatu zuten azken egunean, eta final horretan Ipuruakoez bigarren postua eskuratu zuten. Final horretako pase bakarrean ezin hobeto moldatu ziren eibartarrak, azpitxapeldun izateko. Denboraldirako jarrita zuten helburua lortu dute, beraz, Ipuruako bos-tak bigarren toki hori eskuratuta.

Eibar FT-k bana berdindu du Stoichkov-ek kontratua berri duen aste berean

Eibarrek eta Sportingek bana berdindu zuten herenegun lehen zatian Sportingek lortutako gola bigarrenean Ager Aketxek penaltiz neutralizatu zuen partidua. Partidua berdinduta hasi zen, bi taldeek ekimena eraman nahian eta aurkariaren atea bilatuz. 0-1ekoa 22. minutuan iritsi zen asturiarren kontraeraso batean; golaren ostean, Eibarrek asko sakatu zuen berdinketa azkar lortzen saiatzeko, eta nagusi izatera pasa zen, baina abagune argirik ez zuen sortu lehen



Aketxe jokalaria erabakigarria izan zen.

zatian. Bigarren zatian, ordea, Eibar nagusi izatera pasa zen, Sportingek 0-1ekoa defendatu eta kontraerasoan ezustean harrapatzen ahalegintzen zen bitartean. Lehen aukera argia 52. minutuan iritsi zen, Aketxeren areaz kanpoko jaurtiketa batek korerrean amaitu baitzen eta berak egin zuen berdinketa 66. minutuan, penaltiz. Bigarren gola-tik ere oso gertu egon zen 76. minutuan, falta jaurtiketa bat zutoinean jo baitzuen. Partiduak intentsitate handia izan zuen amaierara arte, baina ez zen gol gehiagorik izan eta Ipuruan jokatu zen urteko azken partidua puntu banaketarekin amaitu zen.

Bestalde, Juan Diego Molina "Stoichkov"-ek bi denboraldirako berri du Eibarrekin zuen kontratua. Orain artekoa 2024ko ekainean amaituko zitzaion, eta orain jokalaria armagina izango da 2026ra arte. Cadizeko futbolaria 2021eko uztailan iritsi zen Eibarrera, eta ordutik ohiko titularra izan da hamaikakoetan, baita zale armaginen idoloetako bat ere. Eibarrekin joka-



tu dituen bi denboraldi eta erdian, 102 partidutan Stoichkovek 41 gol sartu eta 9 asistentzia eman ditu.

Orsaixan zabalik

SD Eibarrek Orsaixanen (Ipurua) duen abonatuarentzako arretarako bulegoa eta denda ofiziala Gabonetan bakarrik asteburuetan eta jaiegunetan itxiko dira, kenduta hilaren 29an -egun horretan, jaieguna ez bada ere, itxita egongo delako-. Gaur Orsaixan zabalik egongo da goizez eta arratsaldez, azken orduko erosketak errazteko. Gainerako egunetan, ordutegia ohikoa izango da: 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:00etara.

Eibar Igerixanekoak bikain Ipuruako Gipuzkoako Master Openean

Eibar Igerixaneko bi ordezkari launa garaipen lortu zituzten aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian jokatutako Master mailako VI. Gipuzkoako Open Txapelketan. Guztira Eibar Igerixaneko bost ordezkari izan zituen lehiaketan guztiek erakutsi zuten maila. Elene Oyarzabal 20 urtetik gorakoan 50 eta 100 metroko bizkar erako probetan nagusitzeaz gain, 100 estilokoan eta 50 librean ere lehenengoa izan zen. Gauza bera egin zuen Ander Salaberriak 25 urtetik gorakoan artean, libre erako 50 eta 200ekoan nagusitzeaz gain, 100 estilokoan eta 50 tximeletakoan ere lehenengoa izan zelako. Marina Azpiazu, 30 urtetik gorakoan artean, bigarren izan zen 50 eta 100 libretan; Gorka Areitioaurtena, 40tik gorakoan mailan, bigarren izan zen 50 tximeletan eta hirugarren 200 libre eta 100 estilotan; eta Ricardo Fernandez, 45 urtetik gorakoan artean, bigarren izan zen 100 libretan eta hirugarren modalitate bereko 50ekoan.



Eibar Igerixaneko batzuk, artxiboko irudian.



Gabonetako Pilota Jaialdia hartuko du gaur Astelenak estreinekoz

Deporreko Pilota Eskolakoez antolatuta, estreinekoz egingo den Gabonetako Jaialdia izango da gaurkoan Astelena frontoian, guztira maila guztietako pilotariak hartuko dituen egitarauarekin. Zazpi norgehiagoka izango dira guztira, 17:00etatik aurrera: 1) Manex Kerrejeta & Egoi Motrico vs Gari Olaetxea & Aratz Andonegi; 2) Enaitz Arriola & Patxi Flores vs Markel Se-

gurola & Markel Urain; 3) errendimenduko infantiletan, Ekain Olaetxea vs Kepa Telleria; 4) kadeteetan, Aleix del Rey & Eki Amuategi vs Oñatz Urkiaga & Ugaitz Seguro; 5) kadeteetan, lau eta erdikoa, Xuban Varona vs Ekhi Azpilikueta; 6) seniorretan, lau eta erdikoa, Hartzart Iraolagoitia vs Alex Bergua; eta 7) seniorretan, Azkargorta & Conde vs Ibarra & Agirresarobe.

Aurreko asteburuan, bestalde, Ander Agirresarobe eta Liher Gilek ezin izan zuten aurrera egin Gipuzkoako txapelketako azken fasean: Agirresarobe seniorrak 22-21 galdu zuen Amezketako ordezkariarekin final-laurdenetako partiduan eta Gil errendimenduko infantilari finalerako txartelak ihes egin zion torneo bikaina egin ondoren.

Asola Berrikoek bikain hasi zuten etxean jokaturako Neguko Bola

Aurreko zapatuan Asola Berri bolatokiak hartu zuen Neguko Bola Txapelketako lehenengo jardunaldian,

Boni Plaza markinarra onena izan bazen ere, goiko postuetan sailkatu ziren gure herriko bolatokiko hain-



Tiraldiko lehenengoko sei sailkatuak, irabazitako sariekin, Asola Berri bolatokian.

bat ordezkari. Plazak zortzi txirlo etzan zituen eta txirlo bakarrera geratu ziren beste hiru bolari, tartean Asola Berriko bi. Euren artekoa parrekotan erabaki eta gero, Udai Zelaia markinarra bigarren geratu zen eta Kepa Rodriguez eta Jose Manuel Perez "Maka" eibartarrentzat izan ziren hirugarren eta laugarren tokiak. Irabazlearengandik bi txirlora, sei botata, zazpikotea sailkatu zen, tartean Asola Berriko hiru: Gari Rodriguez, Jone Perales eta Iker Lazkano. Hurrengo jardunaldia hilaren 29an izango da, 19:00etatik aurrera, Markina-Xemeingo Lauzirika bolatokian.

Julen Teran eta Garazi Sampedro nagusi Bolunburu Memorialean

Aurreko domekan Arrateko Olabe kanpan jokaturako Bolunbururen Oroimenezko 72. krosean, betiko lez, benjaminetatik masterretaraino ko atletak hartzen dituen probak jokatu ziren, bederatzi guztira. Gipuzkoako zirkuitoaren egutegiko proba da Klub Deportiboak antolatzen duena eta, maila absolutuan, etxeko Julen Teran eta Durangoko Garazi Sampedro izan ziren irabazleak. Gizonezkoen proba nagusian Pello Osoro eta Markel Gutierrez eibartarrak ere izan ziren 8.200 metroko zirkuitoan lehiatzen. Teranek 26 minutu eta 12 segundo behar izan zituen helmugaratzeko; Ander Garin tolosarra 16 segundora iritsi zen eta Goierri Garaiaiko Ruben Torres 47ra; orain dela bi urte bezala irabazteaz gain, Teranek puntu onak lortu zituen



Euskadiko selekzioarekin Espainiako kros txapelketan parte hartu ahal izateko. Federatuen mailan guztira berrehun bat atletek hartu zuten parte jokaturako probetan.

Klub Deportiboko ordezkariei

begira, 16 urte eta master mailakoen 3.400 metroko lasterketan Nora Martinez, Roberto Gartzia eta Iñigo Trokaolak hartu zuten parte. 18 eta 20 azpiko kategorietan, bestalde, Ugaitz Gartzia, Oihan Lopez eta Eneritz Trebolazabala izan ziren 4.400 metroko distantziakoan parte hartzen.

Eskola-umeei dagokienez, "klube-koek diziplina honen gogortasuna ezagutu eta berarekin gozatzeko aukera ere izan zuten", diote antolatzaileek. Alebin mailako Lucia Calvo eta Unax Cañorekin batera, haur kategoriako Elene Astigarraga, Naia Kapelastegi, Haizea Magunazelaia, Leire Larrañaga, Malen Anderrez, Martina Egaña, Sonia Mendy, Irati Astigarraga, Jone Gerrikagotia, Enara Urzuriaga, Jare Arzuaga, Arrate Aizpuru, Samantha Villquirán, Maddalen Arrazola eta Mariko Málaga izan ziren parte hartzen.

argazkiak: FERNANDO RETOLAZA





Karpak eskainitako silueta-jokoa. PEDROARRIOLA



“Kantu Berri bat gara” saiorako sarrerak agortzear

Jon Maiak Eibarrera ekarriko duen ikuskizunak ikusmin handia eta harrera ezinhobea eragin du herritarren artean eta, oraindik sarrerak erosteko aukera egon arren, ez dira asko gelditzen. Coliseoko leihatilan ohiko egun eta ordutegian edo kutxabanken eros daitezke. Urtarrilaren 12an, barixakua, 19:00etatik aurrera Coliseok hartuko du Maiaren lan berria, Eibarko Udalaren eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Musika emanaldi bat baino askoz gehiago bizitzeko aukera eskaintzen duen ikuskizuna da, herriaren arabera desberdina izaten delako eta sorpresa ugari izaten dituelako. Jon Maiaren beraren hitzetan “Eibarkoa berezia izango da oso”.



Gozogintza eta TRE tailerrak egin dira ...eta kitto!-n

Illunabarrian programaren barruan tailer bi antolatu ditu euskara elkarteak azkeneko asteetan. Batetik, TRE ikastaroa egin da, tentsio kronikoa askatzeko eta lasaitasuna eta bake sentsazioa berrezartzeko teknika iraultzailea eta, bestetik, gai erabat ezberdina landu da aste honetan elkartearen: Cake Pop izeneko gozogintza tailerrean txokolatzetaz estalitako bizkotxo-forma ezberdinak egin dituzte.



Euskararenganako sentsibilizaziorako saioak Eibarko ikastetxeetan

Aurten ere hainbat sentsibilizazio-saio eman ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekimenez, DBH 1. mailako eta Lanbide Heziketako ziklo guztietako lehen mailan. Harrera ezinhobea izan dute ikasleen artean eta euskararen erabileran aurrerapausoak eman ahal izateko ezinbesteko jarduerak dira. Elkartetik adierazi digutenez, “hiztunengan eragiteko informazioa eta formazioa garrantzitsuak dira, euskarari lotuta hartzen ditugun erabakiak kontzienteak izan daitezen, gure jokabideak duen garrantziaz ohartu gaitezen”.

Kalean da abenduko Txikitto! hilabetekaria

Urteko azkeneko alea jaso dute aste honetan Eibarko LHko ikasleek. Gabonen inguruko eduki berezia biltzen du hilabetekariak, baina ez hori bakarrik. Lehen Hezkuntzako ikastetxeek azken asteotan egin dituzten ekintzen berri emateaz gain, Euskal Herriko mitologiaren inguruko kontuak azaldu dizkigute Urkizuko ikasleek, amama-ilobak elkartu ditugu Amañako ikastetxean solasaldi atseginean, eta ikasleek eurek egindako txiste, denborapasa, ipuin eta beste hamaika konturekin gozatuko dute irakurle gazte zein helduek.





Argazkiaren erdian aurtengo taberna irabazleetako ordezkariak: Trinkete, Ametsa eta Akara. Eskuman, Javier Aizpuru asteburuko egonaldiaren zozketa irabazlea. Eurekin Mireia Alonso eta Josu Mugerza epaimahaikideak.

Trinkete, Ametsa eta Akara dira VIII. Gilda Lehiaketako irabazleak

Martitzenean banatu zituen...eta kitto! Euskara Elkarteak VIII. Gilda Lehiaketako sariak. Epaimahaiaren iritziz Trinketek egin du gilda tradizional onena, eta berritzaileena, berriz, Ametsak. Herritarrek ere izan dute aurten euren gildarik gustukoena bozkatzeko aukera tabernetan egon diren bozka-ontzien bidez eta, 2.000tik gora bozka jaso eta zenbatu ondoren, Akarako gilda izan da onena herritarren ustez. Botoa eman duten horien artean zozketa egin eta gero, irabazlea Javier Aizpuru izan da, eta bi lagunentzat asteburuko egonaldia irabazi du.

Euskeraz primeran! ekimenaren barruan antolatzen den lehiaketa

tan 19 taberna aritu dira aurten, eta hiru egun horietan jende mordoxka ibili da tabernetan, gildak



dastatzen. Mireia Alonsok, Iosu Mugerzak eta Xabier Albizuk jardun dute epaile lanetan eta erabakia ez da erraza izan: “Kalitate handiko produktuekin gilda bikainak egin dituzte, batzuk tradizionalagoak izan dira eta beste batzuk berritzaileagoak, baina guztiak erakutsi dute maila altua. Esango genuke azkeneko urteotako mailarik altuena igarri dugula aurten. Ez dugu gilda txar bakar bat ere jan”. Eta gilda irabazleen inguruan, berriz, hauxe dio epaimahaiak: “Ametsako gildak asko harritu gaitu, ahoan osorik sartu eta gildaren zapore guztiak eztanda egiten dute, eta ogiarekin konbinazio perfektua lortu du. Trinketekoa tradizionala da, oso gilda gozoa eta osagai guztiak kalitate altukoak, olioia, antxoila, piperra... Goraipatzekoa hori ere”.

Antolatzaileen esker ona

...eta kitto! Euskara Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie lehiaketan parte hartu duten tabernei, bozketan parte hartu duten herritarrei eta epaile moduan jardun duten Mireia, Iosu eta Xabiri.



Eibarko Koro Gazteak bihar aurkeztuko du lehen diskoa

Bihar Coliseon eskainiko duen ikuskizun berezian aurkeztuko du Eibarko Koro Gazteak bere lehen diskoa, 'Neguko ahotsak' izenekoa. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du. Gabon kantak ardatz hartuta, taldea osatzen duten hamazazpi neska-mutilek urtebete eman dute proiektu honetan lanean, eta emaitza bihar jendearen aurrean zuzenean erakusteko desiatzen daude. Denontzat ezagunak diren Gabon kantak oinarri gisa hartu badituzte ere, beraien estilora moldatu dituzte, eta emaitza biribila izan da. Udalaren babesarekin Legarreko estudioan grabatu duten lan honetan Ustekabe txarangako musikari batzuen laguntza izan dute, besteak beste.

Kaleratu berri duten diskoa 10 eurotan eros daiteke, Portalean eta Coliseon. Eta, horrez gain, Marsi eta Helmet House dendetan bilketa-puntua ipini dute, aurretiko Bizum ordainketarekin.



Korrikako arropak salduko dituzte bihar Untzagan

Bihar goizean 23. Korrikako arropa saltzen egongo dira AEK euskaltegikoak, Untzagan (Guridi inguruan), 11:00etatik 14:00etara. Helduentzat eta haurrentzat kamisetak, lepokoak, giltzakoak, biserak...



Bertso saioa antolatu dute eguaztenerako Zaizoin

Ez Dok - Zaizoi tabernak eta Hankamotxak bertso eskolak hirugarrenez antolatu dute Gabon Bertso Saioa. Eguaztenean egingo da, 19:00etan hasita, eta Alaiia Martin, Aritz Katarain eta Aitor Sarriegi bertsolariak arituko dira Bittor Sarasketa kaleko tabernan. Gai-jartzailea Maialen Bergara izango da.



Gabonetako mezak kantuz lagunduko ditu abesbatzak

Gabonak direla-eta, Eibarko Koro Parrokialak jai-egun berezietako mezetan abestuko du datozen egunetan, urtero bezala. Astelehenean 12:00etan Karmengo Amaren elizan ospatuko den Gabon eguneko meza alaituko dute, hainbat kanturekin, eta gauza bera egingo dute Urte Berri egunean eta Errege egunean ospatuko dituzten mezetan ere.



Gabonetarako kontzertu berezia prestatu dute Usartza Txistulari Taldekoek

Domekan, abenduaren 24an, emango du Gabonetako kontzertua Usartza Txistulari Taldeak, 12:00etan Untzagan. Emanaldia berezia izango da, eta txistulariekin batera beste hainbatek hartuko dute parte: metal boskoteak, saxofoi laukoteak, pianoak, perkusioak, eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Sostoa Abesbatzak, biolontxelo ikasleek eta txistu ikasleek. Kontzerturako prestatu duten egitaraua ere normalen baino luzeagoa da eta, joko dituzten kantu guztiak Gabonetakoak izan arren, estilo eta erritmo oso ezberdinak tartekatuko dituzte.

Hamasei kantu izango dira guztira: *Christmas everywhere* (F. Metis), *Jingle bells* (J.L. Pierpont), *Umetxoaren ametsak* (S. Secunda – Mold: G. Zabaleta), *Hator, hator* (herrikoia – Mold: F. Aurrekoetxea), *Olentzero* (herrikoia), *Feliz Navidad* (J. Feliciano), *Rudolf, el reno de la nariz roja* (amerikar bilduma), *Olentzero rockero* (Nahiz eta Naia – Mold: T. Agirregomezkorta), *Last Christmas* (G. Michael – Wham), *Mozart's Christmas* (doinu bilduma), *White Christmas* (bossa nova, amerikar bilduma), *American Christmas* (amerikar bilduma), *Din, dan, don* (J.L. Pierpont – Mold: J.I. Ansorena) eta *Martxa Radezsky* (J. Strauss – Mold: R. Lekue). Enrique Montero izango da zuzendaria eta, aurreratu digunez, “eguraldiaren arabera, Untzaga plazan edo arkupeetan arituko gara, Urkizutik irtengo den Olentzeroren kalejira ailegatu arte. Posible bada, Olentzerorekin batera kanturen bat abestea gustatuko litzaiguke, oso polita litzateke eta. Gero, bera udaletxe barrura sartzera koan, guk kontzertuarekin jarraituko dugu”.



Lorelei taldeak ‘Ekografiak’ aurkeztuko du kontzertuan

Mikel Gorosabel *Norton*-ek eta Asier Serranok sortutako Lorelei taldeak kontzertua emango du abenduaren 29an, 19:00etan, Coliseo antzokian. Eibartarrek *Ekografiak* izeneko diskoa kaleratu zuten iaz, eta orain zuzenean entzuteko aukera izango dugu. Norton eta Serrano Antxon Sarasua eta Loiola Maderarekin batera arituko dira. Sarrerak 10 euro balio du.

‘Loti Ederrak’, filtro bariko ipuina

Familia osoarentzat antzez-lana taularatuko du Glu Glu konpainiak abenduaren 27an, 17:00etan Coliseon. Glu Glu konpainiak ipuin klasiko baten aldeko apustu berria egin du, belaunaldi guztientzat hain ezaguna den “Loti ederra” moldatu eta “Loti Ederrak. Filtrorik gabeko ipuina” bihurtzeko, ipuinen fantasia eta magiari uko egin barik. Beti bezala, ez dira faltako musika, dantza eta antzerki-jolasa. Sarrerak 5 euro balio du.



Debabarreneko Orfeoia Ermuan



Debabarreneko Orfeoia Gabonetako kontzertua emango du bihar, Ermuko Santiago elizan. Aste honetan bertan Egogain Gerontologia Zentroan egon dira abesbatzako kideak, bertakoentzat kantatzen. Biharko kontzertua 20:00etan hasiko da, eta *Abide with me*, *Oh Holy night*, *Jul*, *Jul strälände jul*, *Hator hator*, *Oi Betleem*, *Adeste fideles*, *The first Noel* eta beste kantu ezagun batzuk eskainiko dituzte.



10

**DESBERDINTASUN
DAUDE BI IRUDI
HAUEN ARTEAN**



				8	2		
			9	4		7	
	6	2	7		9		3
9	8					6	
		4			3		
	3					2	8
2		3			7	6	9
	5			6	9		
		9	5				

U	E	R	P	E	R	C	I	O	
R	I	Z	A	R	E	I	T	A	
S	E	B	Z	I	N	L	E	V	Z
R	E	L	I	S	T	R	A	C	I
K	S	E	O	I	T	R	A	C	I
S	E	N	A	L	I	Z	E	S	E
L	E	R	I	Z	A	R	E	I	T
R	I	Z	A	R	E	I	T	A	
K	I	C	E	N	Z	E	R		

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

U	E	R	P	E	R	C	I	O	
R	I	Z	A	R	E	I	T	A	
S	E	B	Z	I	N	L	E	V	Z
R	E	L	I	S	T	R	A	C	I
K	S	E	O	I	T	R	A	C	I
S	E	N	A	L	I	Z	E	S	E
L	E	R	I	Z	A	R	E	I	T
R	I	Z	A	R	E	I	T	A	
K	I	C	E	N	Z	E	R		

soluzioa

		4		6		8	
1	8			2	3		
				5			4
8	7			5	2		
		3	6			7	1
4			6				
		8	7			6	2
3		8			9		

Abenduak 22 - 28

BARIXAKUA 22

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

IZOTZ-PISTA

17:00/21:00 Haur eta helduentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Errebal Plaza.

KONTZENTRAZIOA

18:30 Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldekoek deituta. Untzaga.

ZINE-FORUMA

18:30/20:00 "La Mujer de la Montaña" (Benedikt Erlingsson). Portalea (areto nagusia).

ZAPATUA 23

MENDI-IRTEERA

09:30 Aritzbakarragara, Eibarko Baso Biziak taldekoekin. Urkizuko iturritik hasita.

KORRIKA DENDA

11:00/14:00 23. Korrikako arroparen salmenta. Untzaga (Guridi inguruan).

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30

Gabonetako Parkea, 2 -12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Astelena.

IZOTZ-PISTA

11:00/14:00 & 17:00/21:00

Haur eta helduentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Errebal Plaza.

MUSIKA

19:00 Eibarko Koro Gaztearen kontzertua, "Neguko ahotsak" diskoa aurkezteko. 5 euro. Coliseo.



DOMEKA 24

GABONTRAIL

08:30 IX. Gabontrail. Santa Kurutzetik Kalamuara, ospakizuna Parlamentuan eta Eibarrera buelta. Klub Deportibo paretik hasita.

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

OLENTZERO

11:30 "Zatoz Olentzerorekin abestera!". Kalejira, Urkizutik hasita (Arragueta, Coliseo, Errebal, ambulatorioa, T. Etxebarria, Untzaga).

12:30 Olentzerok harrera egingo die umei. Udaletxeko patioa.

MUSIKA

12:00 Usartza Txistulari Taldearen Gabonetako kontzertua, musikariek eta Sostoa Abesbatzak lagunduta. Untzaga.

ASTELEHENA 25

MUSIKA

12:00 Koro Parrokialaren Gabonetako kontzertua. Karmengo Amaren eliza.

MARTITZENA 26

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30

Gabonetako Parkea, 2 -12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Astelena.

IZOTZ-PISTA

11:00/14:00 & 17:00/21:00

Haur eta helduentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Errebal Plaza.

EGUAZTENA 27

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30

Gabonetako Parkea, 2 -12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Astelena.

IZOTZ-PISTA

11:00/14:00 & 17:00/21:00

Haur eta helduentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Errebal Plaza.

ANTZERKIA

17:00 "Loti ederrak. Filtrorik gabeko ipuina" (Glu Glu). 5 euro. Coliseo.

GABON BERTSO SAIOA

19:00 Ez DoK-Zaizoi tabernaren & Hankamotxak bertso eskolaren eskutik. Bertsolariak: Alaia Martin, Araitx Katarain eta Aitor Sarriegi. Gai-jartzailea: Maialen Bergara. Zai Zoi.

EGUENA 28

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30

Gabonetako Parkea, 2 -12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Astelena.

IZOTZ-PISTA

11:00/14:00 & 17:00/21:00

Haur eta helduentzat. 3 euro, dohainik EMGlaren bonoarekin. Errebal Plaza.

ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 14ra arte:

- "EIBAR GAUEZ" Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldearen erakusketa kolektiboa. (Portalea).
- "baT + BaT + baT" pintura eta argazkiak. (Portalea).

Otsailaren 18ra arte:

- "TXIRRINDULARIA", JOSE ZUGASTIrena. (Armagintzaren Museoa).

Otsailaren 29ra arte:

- "EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria simbolikoak", JOSUNE ARANGUREN ZATIKArena. (Andretxea).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

28an (EGUENA)

BERTSO JAIALDIA

20:00 / Herriko Antzokia
Sustrai Colina, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

• **23an:** 17:00, 19:45, 22:30

“Camino a Belén” ABENTURAZKOA



2023/AEB/98'
Zuzendaria: Adam Anders
Aktoreak: Fiona Palomo, Milo Manheim, Antonio Banderas
Musikala/Biblia/Gabonetakoa

2 ARETOA

• **23an:** 17:00

“Abentura erraldoia” ANIMAZIOA



2023/Peru/80'
Zuzendaria: Eduardo Schuldt
Abenturak/Familian ikustekoa

2 ARETOA

• **23an:** 19:30

“El Cascanueces” BALLE PROIEKZIOA



2022/Erresuma Batua/165'
Zuzendaria: Pyotr Il'yich Tchaikovsky
Londreseko Royal Opera Hall-en grabatuta



<p>*** FUNEUSKADI Funeraria Mugica</p>	<p>*** FUNERARIA MUGICA Funeraria Mugica</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO KREMATORIO EGOITIA</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeispina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

**ESKERTZAK ETA
URTEURRENAK**

Urkuzu, 11 - solainurtea
publizitatea@etakitto.eus
688 62 76 89

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **LUR**, domekan 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Naike, Oinatz eta Bernaten partez.



Zorionak, **ADUR**, hillaren 13an urtetxua bete zenduan-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **HINAS!** Astelehenian 11 urte bete zenduaz-en-eta. Besarkada haundi bat zure famelixa-ko danon partez. Zoragarrixa zara!



Zorionak, **MADDI**, gure neska polita. Hillaren 4an 11 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **BITTOR!!!** Hillaren 28xan 8 urte beteko dozuz-eta. Oso ondo ospatu, inguru-kuakin batera, eta patxo haundi bat famelixaren partez!



Zorionak, **MAREN**, hillaren 24an 10 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez, oso ondo pasa eta musu haundi bat.



Zorionak, **LUKA**, gure eguzki distiratsua, gaur 7 urte beteko dozuzelako. Jarraitu hain ausart eta alai. Etxekuen partez!!!



Zorionak, **JON**, Gaur 5 urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Oierren partez.



Zorionak, **ELIIII**, txapeldun!!! EGA gaindittu dozulako! Lorpen garrantzitsu hau danok ospatuko dogu zurekin.



Zorionak, **ALICIA**, domekan urtiak beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.

Jesus Maria San Martin Azpiri

2023/12/09
Donostian hil zen,
74 urterekin

"Zure bizipoza eta umore ona betirako izango dira gure bihotzetan"

- ETXEKOAK -

JOSE ANTONIO FURUNDARENA
2022/11/17

ANTONI ANSORREGI
2020/01/19

BETI GURE BIHOTZEAN
etxekoak

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Emakume batek etxebizitza hartuko luke alokairuan. 603258452.

1.3. Konpartitzeko

- Laguna behar dut pisua konpartitzeko Elgoibarko baserri batean. 669512815.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje itxia eta zabala alokagai Ipuruia inguruan. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. 631612652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsaldetan eta asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 646821678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Externa. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da testuak digitatzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 670389880.

- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko. 634651895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 612270162.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624416776.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita egoitzetan ere. 641417815 / 632768653.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta informeak. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko jaieguna eta asteburuetan. Externa. 631425686.
- Garraiolaria eskaintzen da, furgonetarekin, errekaduak eta bestelakoak egiteko. 631935349.

4.2. Langile bila

- Administrazio/auxiliar edo aho eta hortzetako higienista behar da. Bidali curriculum-a: hortzklinika.06@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Goi mailako jazz kontrabaxuko ikasleak musika teoria, baxu elektriko eta kontrabaxuko klaseak ematen ditu. 673366678. Alex.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.3. Galdu/Aurkitu

- Atzo Estaziño kalean (Burbujas y más dendaren inguruan) urrezko eta perladun belarritakoa aurkitu zuten. Udaltzaingoa jaso daiteke.



ZURE ALDE

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
ABOKATUAK

J A U S O R O P L A Z A , 3 B E H E A

6 8 8 7 7 7 8 8 3

zurealde.elgoibar@gmail.com

G A B O N Z O R I O N T S U A K
2 0 2 4

28. Eibarko
KIROL
Sariak

ABENDUAK **31** COLISEO ORDUA
DOMEKA ANTZOKIA 12:00



Ausartu zaitez aldatzen audifono ikusezin berriekin.

Bizitzari entzuteak merezi duelako.

audiocentros.com

 **audiocentro**
Igmar

Calle Julian Etxebarria, 2
20600 · Eibar
Tel. 943 20 12 64